

## Koldo Bravo ◉ 'La Behobia' liburuaren egilea

Zazpigarren aldiz Behobia-Donostia lasterketa ezagunean parte hartuko du Koldo Bravok igandean; lehenago, ordea, bere bigarren liburua aurkeztu du.

# «Presarik gabe idaztea da garrantzitsuena, zure kasa»

### Estitxu Zabala

Korrika egitea oso gustuko du Koldo Bravok (1961). Egiatarra izatez, Amara Zaharrea bizi da gaur egun, eta Musikeneko mediatekako zuzendaria da. Bere bi afizioak batu ditu kaleratu berri duen eleberrian, korrika egitea eta idaztea. Behobia-Donostia lasterketan lehen aldiz parte hartzea erabakitzen duen lkerren istorioa kontatzen du, gertutasunez eta umorez.

**Zerk bultzatu zaitu Behobia-Donostiaren inguruko eleberririk idazteko?**

Nire bigarren eleberria da. Ni askotan aritzen naiz korrika, eta Behobia-Donostia lasterketan sei aldiz parte hartu dut. Hortaz idazteko gogoia jarri zitzaidan, gai horretaz literatura gutxi dagoelako. Pixkanaka-pixkanaka ideia handitzen eta betetzen joan nintzen, pertsonaia nolakoa izango zen... Gainera, Behobia-Donostia lasterketa zoragarria da niretzako eta gogoia nuen hor zer gertatzen den esateko; lasterketa zergatik duen gogoko hainbeste jendeak...

**Denbora asko behar izan duzu idazteko?**

Zertaz idatziko nuen erabaki nuenetik bi urte pasa dira. Ez dut denbora guztia idazten pasa, baina azken sei hilabeteak nahiko gogorrak izan dira. Aurreko liburua idazteko denbora gehiago behar izan nuen, agian lehenengoa zelako. Horrekin idazten ikasi nuela iruditzen zait; orain teknika hobeak ditut, oraindik idazlea ez naizen arren.

**Euskalduna izanik, zergatik erabaki duzu eleberririk idazteko?**

Bueno, ni euskaldun berria naiz... eta ez nintzateke euskaraz idazteko ausartuko. Euskara, hitz egiteko menperatzen dut, eta lanean euskaraz aritzen naiz, baita eguneroko harremanetan ere. Baina ez naiz euskaraz idazteko gai sentitzen.

**Aurrerago euskaraz idatzi nahiko zenutke?**

Hain zaila ikusten dut momentu hori benetan... ez zait bururatu ere egin. Nire esperientzia eta buruan ditudan irudiak gaztelera dauka. Euskaraz idazten dutenak, bizitza euskaraz bizitu dutenak izan behar dira nire ustez. Ni baino askoz hobeto egin dezakeen jende asko dagoela iruditzen zait. Kasu honetan, nire liburua euskarara itzuliko balute asko poztuko nintzateke.

**«Ez naiz euskaraz idazteko gai sentitzen»**

**«Korrika egiten ez duenarentzat agian interesgarriagoa izan daiteke»**

**Korrika egiten ez dutenarentzat ere eleberririk interesgarria dela uste duzu.**

Bai. Korrika egiten ez duenarentzat agian interesgarriagoa izan daiteke. Horiek ikus dezaketelako zer gertatzen zaien lasterketan parte hartzen dutenei; zer gustatzen zaien, zein zailtasun izaten dituzten, zer den Behobia-Donostia, zer gertatzen den irteeran, zergatik den hain gogorra Pasaiatik igarotzea... informazioa baino gehiago, esperientziaren berri jasoko dute irakurleek.


**Fikziozko istorioa da, baina zuk bizitako errealitateak asko izango du, ezta?**

Fikzioa da erabat. Baina nik kontatzen dut, eta nire ingurutik eta nire esperientzietatik gehien interesatzen zaidana aukeratu dut. Pasarteak badaude, baina sekula ez nuke nire esperientzia zuzena kontatuko, hori ez du inork egiten.

**Umoretik ere jo nahi izan duzu.**

Bai. Garrantzitsua dela iruditzen zait. Gero irakurleek esan behar-

ko dute ea nire helburua lortu du-



E.Z.

dan ala ez. Umorea eleberririk honi ongi datorkiola pentsatzen dut. Behobia-Donostiak jai giro kutsua du, umoretsua.

**Igandean zure zazpigarren Behobia-Donostia egingo duzu.**

Iaz, 1:40ko denbora egin nuen. Aurten, hortik beherako guztia ongi etorriko zait. Egia esan ez dut apusturik egin, baina iazko denbora ahal bezala jaisteko ideiarekin aterako naiz.

**Buruan duzu beste eleberririk bat idaztea edo oraingoz nahikoa duzu egindakoarekin?**

Baditut ideiak buruan, baina lasai hartzen dut, ez dudalako inolako beharrik. Zerbait bururatzen zaidanean jarriko naiz horretan. Presarik gabe idaztea da garrantzitsuena, zure kasa.

◉ ezabala@hitza.info

### ➔ Argitalpena

#### LA BEHOBIA, CRONICA DE UN DESAFIO

■ **Egilea.** Koldo Bravo Goñi. Euskal Herriko Unibertsitatean filosofia ikasketak egin zituen, eta 2001etik Musikeneko mediatekako zuzendaria da. 1995ean *Estreno en Berlin* bere lehen eleberria kalera-tu zuen.

■ **Orrialde kopurua.** 230.

■ **Argitaletxea.** Erein.

■ **Prezioa.** 19 euro. Eleberria dagoeneko salgai dago Gipuzkoako liburu dendetan.

Tapizeria  
**mondizabal**  
TAPIZERIAK • GORTINAK • OSAGARRIAK  
Madrid etorbidea, 22 - Tel.: 943 485 295 - 20011 DONOSTIA